

# Kultur Agenda

Urtarrila  
Otsaila  
Agoitz  
2021

☎ 948 336 690

✉ [cultura@aoiz.es](mailto:cultura@aoiz.es)

f Facebooken gaude



[www.aoiz.es](http://www.aoiz.es)

  
Agoizko Kultur Etxea  
Casa de Cultura de Aoiz

 Nafarroako  
Gobernua

 NAFARROAKO  
ANTZOKI  
SAREA

## urtarrila

				1	2	3			
4	5	6	7	8	9	10			
11	12	13	14	15	16	17			
18	19	20	21	22	23	24			
25	26	27	28	29	30	31			

## otsaila

1	2	3	4	5	6	7			
8	9	10	11	12	13	14			
15	16	17	18	19	20	21			
22	23	24	25	26	27	28			

## urtarrila

### 9a **Liburu aurkezpena.**

*Muerte a la Reina de Navarra. Pello Guerra.*

### 15-30 **Erakusketak.** *Ezkaba.*

### 17a **Zine-Dokumentala.**

*El infierno. Raúl de la Fuente Calle.*

*Before I die. Iker Esteibarlanda.*

### 24a **Musika.**

*Luces, música, ¡acción!. Suakai Productions.*

## otsaila

### 20a **Liburu aurkezpena.**

*Sugarren mende. Asisko Urmeneta.*

### 20-2 (marzo) **Erakusketak.**

*Moldaera: Klima-aldaketaren aurkako beste borroka hori.*

### 21a **Musika.**

*Incorrectas. Demode Productions.*



# Erakusketak

## EZKABA

**15-30** urtarrila  
Areto Nagusia

Asteartetik larunbatera: 18:00-20:00



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra



1938ko maiatzaren 22an Ezkaba mendiko San Cristobal Gotorlekuko 800 presok inguru, Espainia osotik ekarriak ihes egin zuten Frantziako helmuga zeharkatzen saiatzeko. Denbora luzez ihesaldia ilunantzean gelditu zen, ahaideek, ikerlariak eta memoriako elkarteek azaleratu arte. Europako ihesaldi handienetariko bat izan zen. 206 iheslari erailda izan ziren Gotorlekuaren eta mugaren arteko zenbait menditan eta tokitan. Horiez gain, 14 iheslari fusilatu zituzten geroago ihesaldiaren buruzagiak leporatuta.

82 urte pasa dira San Cristobal Gotorlekuko ihesalditik eta Nafarroako Gobernuak, bultzatzen ari den memoriako politika publikoen artean, ekarpen esanguratsua egin nahi izan du, gertaera horien oroitzapenerako eta memoria babesteko. Ezkaba Proiektuan gertaera horiek gogoarazten dituzten ekimen batzuk biltzen dira, ikuspuntu bikoitza abiatuta: memoria eta Giza Eskubideak.

**Inauguración:**

15 de enero | viernes | 18:00

## MOLDAERA: KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO BESTE BORROKA HORI

La otra lucha  
contra el cambio  
climático

**ADAPTACIÓN**

**MOLDAERA**

Klima-aldaketaren  
aurkako beste  
borroka



**20-2** otsaila-martxoa  
Areto Nagusia

Asteartetik larunbatera: 18:00-20:00


Bizitzen ari garen osasun larrialdi egoera honetan ez genuke beste larrialdi bat ahaztu nahi, larrialdi klimatikoa hain zuzen ere. Honelako krisialdietarako prest egoteak duen garrantzia ikusi dugu. Helburu nagusia berotze globala geldiaraztea da, eta honekin batera ezinbestekoa da gure erantzuna gero eta bero, muturreko eta ezezagunagoa den

klimarekiko. Nafarroako Gobernuak, KLINa (Nafarroako klima Aldaketaren Bide orria) eta LIFE NAdapta proiektuaren bidez, klima aldaketa eta bere inpaktuen inguruko ezagutza sustatu nahi du ondoko erakusketarekin.



## LUCES, MÚSICA, ¡ACCIÓN!

SUAKAI PRODUCTIONS



**24** urtarrila  
igandea  
**19:00 Kultur Etxea. 10€**

Publiko guztiak  
Iraupena: 75 min.

### Zinemaren magia eta bere musika

Zinemaren emozioa antzoki eta auditorioetara eraman dute, oraingoan, zuzeneko soinu-banda originalarekin. Ikuskizunak irauten duen 75 minutuetan, etenik gabeko bidaia bat bizi ahal izango da zinemaren historiako soinu banda garrantzitsu eta erakargarrietan zehar. Horiek guztiek milimetrikoki sinkronizatutako filmetako irudiekin lagunduta, pantaila handian gertatzen den bezala. Kalitate handiko ekoizpen paregabea, mota guztietako espazioetara egokitu ahal izateko bereziki sortua, ekipamendu gehiago edo gutxiago duten espazioetara, barnealdean edo aire zabalean egiteko aukera, etab. Ikusleen bi pasio handienak batuz, zinema eta soinu bandak, formatu txiki eta originalean jorratzen dituen ikuskizuna da.

---

## INCORRECTAS

DEMODE PRODUKZIOAK



**21** urtarrila  
igandea  
**19:00 Kultur Etxea. 10€**

Kontzertu Eszenikoa.  
Publikoa: Gaztea, heldua  
Iraupena: 70 min.

“Incorrectas” bere garaiko politikarekin, kulturarekin edo ohiturekin “okerrak” izan ziren abeslari edo musikagile ezagunei buruzko musika ikuskizuna da, haien artean oso bestelakoak izan arren: Janis Joplin, Maria Callas, Judy Garland, La Lupe, Dolly Parton, Nina Simone, Sinead O’connor, Chavela Vargas...

**Joli Pascualena:** Ahotsa eta gitarra akustikoa

**Leire Celestino:** Pianoa.

**Paula Azcona:** Txeloa.

# Line - Dokumentala

**17** urtarrila  
igandea  
**18:00 Kultur Etxea**

Publikoa: Gazte eta heldua.  
Sarrera librea.

Leihatila ordubete lehenago irekiko da gonbidapenak erretiratzeko.

## EL INFIERNO RAÚL DE LA FUENTE CALLE




Chennuk 15 urterekin bere lehen delitua egin zuen: kaleko haurra izatea. Eta infernuan sartu zen: Pademba Road. Freetowneko helduen kartzela. Infernuan Mr. Sillahk agintzen du eta presoek itxaropen guztiak galtzen dituzte. Chennuk 4 urteren ondoren lortu zuen irteeta. Orain Padembara itzuli nahi du.

**Produkzioa:** Kanaki Films.

**Zuzendaritza:** Raúl de la Fuente Calle.

**Gidoia:** Raúl de la Fuente Calle, Amaia Remírez García.

## BEFORE I DIE IKER ESTEIBARLANDA



Kenian, Victoria aintzirako irla txiki batean, arrantzaleek edozertarako eskubidea dutela uste dute. Bitartean, bertako emakume eta neskak isiltasunaren zama jasatera kondenatuta daude. Emakume gazte batek bere istorioa kontatzea erabaki du, haurtzaroko oroitzapenetara egingo duen bidaia intimoan zama arindu eta itxaropenerako bidea aurkitzeko...

**Zuzendaritza:** Iker Esteibarlanda.

**Gidoia:** Iker Esteibarlanda, Nazareth Torres.

# Beste Jarduerak



## LIBURU AURKEZPENA "MUERTE A LA REINA DE NAVARRA" PELLO GUERRA

urtarrilaren 9a | larunbata | 18:00 | Kultur Etxea

Erlijo-gerra, errepresioa Nafarroa Garaian, espioitza, gorteko intrigak eta asedioak erresuma zaharraren biziraupenari buruzko trama bizkor batean gurutzatu dira.



## LIBURU AURKEZPENA "SUGARREN MENDE", HITZALDI ILUSTRATUA ASISKO URMENETA

otsailaren 20a | larunbata | 18:00 | Kultur Etxea

Asisko Urmenetaren komiki-liburuak XVI. eta XVII. mendeetako jazarpenak biltzen ditu. "Sugarren mende" liburuan garai hartako herritarren tragedia kontatzen da, bere testuinguru historiko eta geografikoan, inkisizioaren atzaparren hedadura eta antolaketa buruz.

## Sarreraren salmenta:

- Interneten: [www.aoiz.es](http://www.aoiz.es)
- \***Oharra:** Sarrerak Internet bidez erosi ezin duenak salgai izanen ditu Kultur Etxean, erakusketa zabalik dagoen ordutegian.
- Leihatilan, ikuskizuna hasi baino ordu bete lehenago (sarrerarik gelditzen bada)
- \*Hartutako sarrerak ezingo dira aldatu, ezta itzuli ere, ikuskizuna bertan behera uzten denean izan ezik.

## Araurorokorrak:

- Ezin izanen da aretoan sartu, funtzioa hasita baldin badago.
- Sakelako telefonoak edo/eta mota guztietako alarma edo seinaleak itzaliko dira, Kultur Etxera sartu eta.
- Isilik egon, aktoreek arreta gal ez dezaten eta beste ikusleekiko errespetuagatik.
- 7 urtetik beherako haurrak arduradun batekin agertuko dira, edozein dela antolatutako aktibitatea.
- Ezin da filmatu, grabatu edo argazkirik atera, Kultur Etxeak espresuki baimena eman ez badizu.
- Ikuskizuna edo aktibitatea garatzen den bitartean, libre egonen dira sarrerak, irteerak eta pasilloak, eta ez da han inolako elementurik utziko.
- Ezin da Kultur Etxera sartu animalia, bizikleta edo patinekin batera.
- Kultur Etxeko aretoetan ezingo da jan edo edan, Kultur Arloak egoki ikusten dituen zenbait egoeratan izan ezik. Modu berean, erretzea ere debekatuta dago.
- Programazioan zerbait gertatuz gero edo aldaketarik emanez gero, jakitera emanen da ohiko hedabideen bidez.
- Kultur Etxean dauden langileek esandakoari jarraituko zaio beti.
- Agoizko Udalak adierazitako arauak errespetatzen ez dituzten pertsonak onartzeko edo baztertzeko eskubidea dauka.

---

## COVID-19 SEGURTASUN-NEURRIAK

Agoizko Kultur Etxean, osasun-agintarien gomendioak eta gidak jarraituz, babes-neurriak ezarri ditugu gure zerbitzu eta instalazioetan, koronabirusarekiko esposizioaren arriskuak ahalik eta gehien murrizteko eta, horrela, pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatzeko.

Neurriak etengabe berrikusten ari dira, COVID-19ri buruz indarrean dauden araudiak eguneratzearen eta egokitzearen arabera.

### 1. Instalazioak garbitzea, desinfektatzea eta mantentzea

- Ekitaldi bakoitzaren aurretik eta ondoren, erabiliko diren instalazioak garbitu eta desinfektatuko dira.
- Erabiltzaileek erabil ditzaketen espazio guztiak egunero garbituko dira, edo eta erabilera-maiztasunaren eta jende-fluxuen arabera.
- Gel-banagailu hidroalkoholikoak behar bezala seinaleztatuta jarriko dira.

### 2. Instalazioetara sarbideak eta zirkulazioak

- Publiko-fluxuak zuzentzeko behar diren bitartekoak artikulatuko dira. Sarrera mailakatua izango da, eta segurtasun-tarte egokiak gordeko dira.
- Txarteldegian zein aretoetarako sarbideetan segurtasun-distantzia mantentzen dela zainduko da, lurrean argi eta garbi identifika daitezkeen markak txertatuz.

### 3. Norberaren osasuna eta higiena

- Kultur Etxean eta antolatutako ikuskizunetan derrigorrezkoa izango da maskarak erabiltzea.
- Gel-hidroalkoholikoa aretoaren sarreran egongo da.